

## HIZNET HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA

**Iñaki Martínez de Luna**

*Zuzendaria*

**Elixabet Almandoz**

*Arduradun teknikoa*

Helbide elektronikoa: [hiznet@asmoz.org](mailto:hiznet@asmoz.org)

### SARRERA

HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa *e-learning*, *on-line* heziketa edo *heziketa birtual* izenekin ezagutzen den motakoa da, hau da, nagusiki internet bidez eskaintzen den horietakoa, hain zuzen. Baliteke hori izatea gradu-ondoko ikastaro honek lortu duen arrakastaren gakoetako bat, izan ere sarearen bitartez burutzen den ikasketa hauetan ikasleen joan-etorriak neurri handian saihesten direnez, horrek, azken finean, denbora eta dirua aurrezteak dakar. Arrakasta diogu, euskaraz baino eskaintzen ez den halako ikastaro batek sei urtez (2001etik 2006ra bitartean) irautea ez baita ahuntzaren gauerdiko eztula. Azaldu eta azter ditzagun, ondoko lerroetan, ikastaro honen izaera eta hainbat ezaugarri.

Heziketa birtualeko izaera, dena den, ez da ikastaro batek iraun dezan betebeharreko eta ezinbesteko baldintza bakarra. Izan ere, ikastaroak bestelako meriturik ez balu, garapen eta aurrerapen teknologiko hutsek ez lukete besterik gabe eskasa dena erakargarri bihurtuko. Horregatik, ikastaroa euskarri telematikoaren bitartez antolatu izana ez ezik, bestelako ezaugarri eta baldintza batzuek arrakastaren oinarrian daudela pentsatu behar dugu. Zeintzuk, baina?

## **SOZIOLINGUISTIKAKO FORMAZIOAREN PREMIA ASE- TZEKO AURREKARIAK**

Euskal Herria elebidun edo eleanitza izan arren, soziolinguistikaren eremuak ez du leku handirik lortu irakaskuntzan; ez, bederen, euskara pairatzen duen egoera minorizatutik ateratzeko ahaleginek jakintza-arlo horretan eskatzen duten formazioa asetzeko bestekoa.

XX. mendeko azken hamarkadan Euskal Herriko Unibertsitateak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzaren laguntzaz, HIZNET-ek oinarritzat hartu duen gradu-ondokoa antolatu zuen, bi ikas-turtez. Hala ere, diru-laguntza ofiziala bertan behera gelditu zen une berean, ikastaroa desagertu zen. Hain iraupen motzeko saio hark arrakasta lortu zuen, ikasle kopuruan zein emaitza akademikoetan, baina ez zuen jarraipenik izan, formazioaren premia asegabe utziz.<sup>1</sup>

Euskararen normalkuntza saioek profesional prestatuen eskaerari unibertsitateek pribatuek zein publikoak entzungor egin zioten, salbuespen bakarrarekin: formatu laburreko ikastaroak eskaintzen zituen Udako Euskal Unibertsitatearena, hain zuzen.

## **ELKARLANA, EZINBESTEKO BALDINTZA**

Euskaraz eskaintzen den ikastaro orok komunitate euskaradunaren dimentsio apala hartu behar du kontuan ezinbestez, tamaina murrizt horrek balizko merkatuaren zabalera zeharo mugatzen duelako.

Euskaldunak gutxi izanik, gradu-ondoko ikastaro bat egiteko baldintzak betetzen dituztenak are gutxiago dira eta, horrezaz gain, halako formazioaren premia dutenek multzo mugatu baina mugatuagoa osatzen dute, ezinbestez.

Horregatik, euskalgintzako eta euskarazko ardura dutenen elkarlana beharrezkotzat jo zen hasiera-hasieratik eta, erakunde, talde eta euskaltzale garrantzitsuenak proiektura biltzeko ahaleginek erantzun ezin hobe jaso zuten deituak izan ziren guztien aldetik; bereziki EHUKo Soziologia 2 sailarena, SEI Elkartearena, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarena, eta UEUrena. Halakorik ezean, balizko bezeria zati-tzeko eta, horren ondorioz, izen-ematearen kopuru are txikiagoa lortzeko arriskua begi-bistakoa zen. Horrela gertatuz gero, ikastaroaren bideragarritasun ekonomikoa zeharo murriztuta geldituko zen.

## **HELBURUAK ETA HARTZAILEAK**

HIZNET ikastaroa euskararen normalkuntzan behar beharrezkoa den soziolinguistikazko ezagutza kualifikatu eta sistematikoaren premiari aurre egiteko sortu zen. Izan ere, euskararen normalkuntza aspaldian abiatu bazen ere, euskararen normalizazioan lanean dihardutenek, sarritan, intuizioz eta prozesu horren baitako barne-mekanismoez ondo jabetu gabe

---

*Euskal Herria elebidun  
edo eleanitza izan arren,  
soziolinguistikaren  
eremuak ez du leku  
handirik lortu  
irakaskuntzan; ez,  
bederen, euskara  
pairatzen duen egoera  
minorizatutik ateratzeko  
ahaleginek jakintza-arlo  
horretan eskatzen duten  
formazioa asetzeko  
bestekoa.*

*Euskararen normalkuntza  
saioek profesional  
prestatuen eskaerari  
unibertsitateek -pribatuek  
zein publikoak- entzungor  
egin zioten, salbuespen  
bakarrarekin: formatu  
laburreko ikastaroak  
eskaintzen zituen Udako  
Euskal  
Unibertsitatearena, hain  
zuzen.*

jokatzen dute, soziolinguistikazko ezagutza-sakonaren falta dela medio.  
Ikastaroaren helburu zehatzak honakoak dira:

- Soziolinguistikako ezagutza sakona eskaini.
- Hizkuntz egoeraren berri zehatza jaso ahal izateko beharrezkoak diren metodologiez eta teknikez jantzi.
- Hizkuntz egoera hobeto ulertzeko eta normalkuntzarako bidean hartu beharreko estrategiak finkatzeko lagungarriak diren oinarri teorikoak eskaini.
- Euskararen normalkuntzaren plangintzarako metodologiez eta lanabesez jantzi.
- Hizkuntza gutxituei teknologia berrien eskutik datozkien erronkak eta eskaintzen zaizkien aukera berriak ezagutarazi.
- Euskararen egoeraren berri zehatza eskaini, eta baita Euskal Herriko gizarteak hizkuntzekiko eskaintzen dituen baldintzenak ere.

Hartzaileei dagokionez, honako profila dutenei zuzentzen zaie bereziki ikastaroa:

- Egun euskara teknikari lanetan diharduten edo egunen batean zeregin horietan aritzeko asmoa duten guztientzat, zeregin horietarako prestakuntza profesional eta egokia eskainiz.
- Urteetako jardun profesionalaren ondorioz eskarmentua duten *profesionalei*, egun agertzen diren premia eta erronka berrien aurrean euren gaitasuna eta jakituria eguneratzeko aukera izan dezaten.
- Unibertsitate ikasketak burutu dituzten *ikasleentzat eta ikerlariarentzat*, euren formazio eta titulazioaren osagarri gisa.
- Toki eta Foru administrazioan, hezkuntza sisteman eta antzeko lan-arlotan, hizkuntz normalkuntzan erantzukizun publikoa duten askorentzat euren eginkizunak aurrera eramateko oinarri sendoagotik abia daitezen.
- Euskalgintzako euskaltzale edo euskararen inguruan dihardutenentzat, beren gogoko gai horietan funts sendoago batetik abiatuta lan emankorrak egin dezaten.

## EDUKI OPARO ETA MALGUA

Ikastaro egoki batek bezeroen gogo asebete behar du, aurrez aurreko ikastaroa izan nahiz internet bidezkoa izan. Hori izan da urteotako kezka eta ardura nagusia Asmoz Fundazioko arduradunentzat zein ikastaro horretarako arduradun tekniko eta zuzendariarentzat.<sup>2</sup>

Eduki oparoa eta egokia eskaintzea da ikastaro baten oinarria. Kalitatezko edukiak eta ikasleen premiei erantzuten dizkieten edukiak eskaintzea izan da, gure kasuan, lehendabiziko erronka; hots, ikasleen esku ikastaro mamitsua eta erakargarria jartzea.

Asmo horrekin, 2001-2002 ikasturtean 18 irakasgaiko eskaintza prestatu zen, bost arlotan banatuta. Urteak joan urteak etorri, alabaina, eskaintza egokituz eta zabalduz joan da etengabe, 2006-2007 ikasturtean dagoen 26 irakasgairen eta 290 orduko eskaintza osatzearaino.<sup>3</sup>

Hala ere, ikastaroko arduradunek ikasleek zer behar duten zehatz-mehatz dakigula pentsatzea inozokeria galanta litzateke, pertsona eta profesional bakoitzak besteengandik bereizten duten oinarri eta premia profesional zein izaera eta ezaugarri propioak dituelako. Hortaz, irakasgaien eskaintza askoz zabalagoa da (290 ordu) ikastaro osoko irakasgaiak burutzeko derrigorrezkoa den ordu kopuruarena baino (200 ordu), era horretan ikasleek beharrezko edo gustuko dituzten edukiak malgutasunez aukera ditzakete. Izan ere, kurtso osoa egin nahi duten ikasleek 250 ordu bete behar dituzte: 200 ordu irakasgaietan gehi beste 50 orduetako balioa duen sakontze egitasmo bat aurrera eramaten; ikerlan hori aurrera eramateko tutore baten gidaritzapean dihardute ikasleek.

Malgutasuna malgutasun, osorik ez ezik, ikastaro hau moduluka ere egin daiteke eta, hautu hori egiten dutenek, gutxienez 70 ordu gauzatu beharko dituzte eta ez dute ikerketa lanik egin beharko.

Ikastaroaren malgutasuna, berriz ere, beste hainbat ezaugarrietan antzeman daiteke, adibidez irakaskuntzaren formatu edo euskarrietan. Alegia, *on-line* edo internet bidezko ikastaroa dela argi utzi dugun bezala, euskarri hori aurrez-aurreko saioekin osatzen dela ere aipatu behar da. Ezagunak dira urrutiko irakaskuntzaren izaera hotza eta elkarrekintzarako zailtasunak. Berezko gabezia horiek gainditzeko, edo apaltzeko behinik behin, bigarren ikasturtetik aurrera irekiera saioa eta aurrez aurreko beste lau saio antolatuta dira, urtez urte. Horietako bakoitzean eta lau orduz, ikasleek landutako irakasgaien inguruko azalpenak eta adibide praktikak eskaintzen dituzte gai horien ardura duten irakasleek. Larunbat goizetan burutzen dira saio hauek, UEUren egoitza nagusian, Eibarko Markeskua Jauregian.

## IRAKASLERIA GAITUA ETA ARITUA

Irakasgai egokiak osatzeko gakoa irakasleen jakintzan eta konpetentzian datza, dudarik gabe. Hasiera batean, 26 irakasle aritu ziren irakasgaiak ematen, baina, eskaintza egokituz eta zabalduz joan denez, 2006-2007 ikasturtean 33 irakasle ditugu irakaskuntzaren arduradun.

Gure ikastaroak indarrean daramatzan sei ikasturteotan hainbat arlotako irakasleen laguntza izan dugu. Besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikerlariak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzako teknikariak, euskararen udal teknikariak eta euskalgintzako beste profesional batzuk ere (adibidez: Soziolinguistika Klusterrekoak, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilukoak, Hizkuntz Eskubideen Behatokikoak eta EMUN aholkularitzakoak edo Kuadrillategi egitasmoaren bultzatzaileak) gurekin aritu dira.

---

*HIZNET ikastaroa euskararen normalkuntzan behar beharrezkoa den soziolinguistikazko ezagutza kualifikatu eta sistematikoaren premiari aurre egiteko sortu zen. Izan ere, euskararen normalkuntza aspaldian abiatu bazen ere, euskararen normalizazioan lanean dihardutenek, sarritan, intuizioz eta prozesu horren baitako barne-mekanismoez ondo jabetu gabe jokutzen dute, soziolinguistikazko ezagutza-sakonaren falta dela medio.*

Puntako irakasleria trebatua eta aritua beti ere, eransten den taulan ikus daitekeen bezala.<sup>4</sup> Baina gradu-ondoko ikastaro bati dagokion mailari eustea ez da beti erraza izan; alegia, gurean tradizio akademiko handirik ez duten soziolinguistikako gaiez irakasle prestatuak aurkitzea eta, aldi berean, irakasle horiek euskaraz ere trebatuta egon beharra, burukomin bihurtu zaizkigu batzuetan. Halakoetan, kostata bada ere, oztopoak gaindituz eta finkatutako bideari jarraituz, aurrera egin dugu beti.

**2006-2007 IKASTURTEKO IRAKASGAIAK, IRAKASLEAK ETA ORDU KOPURUAK**

| <b>1. modulua. SOZIOLINGUISTIKAREN HASI-MASIAK: SOZIOLINGUISTIKAREN FUNTS TEORIKOAK</b> |                                                                           |         |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------|---------|
| 1. Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan                                                 | Patxi Juaristi<br>Andoni Barreña                                          | 10 ordu |
| 2. Soziolinguistikaren oinarriko kontzeptuak                                            | Lionel Joly                                                               | 10 ordu |
| 3. Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko                     | Mikel Zalbide<br>Xabier Erize                                             | 30 ordu |
| 4. Ikuspegi soziologikoa eta gizarte psikologiarena                                     | Olatz Olaso                                                               | 10 ordu |
| 5. Hizkuntzen ekologia                                                                  | Pablo Suberbiola                                                          | 5 ordu  |
| 6. Hizkuntza kulturaren bitarteko gisa. Antropologiaren ekarpenak                       | Jone M. Hernandez                                                         | 5 ordu  |
| <b>2. modulua. EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAREN DIAGNOSTIKORAKO HURBILPENA</b>               |                                                                           |         |
| 7. Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak                              | Zesar Martinez<br>Kontxesi Berrio-Otxoa<br>Nekane Jausoro<br>Olatz Altuna | 35 ordu |
| 8. Plangintzaren funts teoriko eta teknikoak                                            | Iñaki Marko                                                               | 25 ordu |
| 9. Diagnosirako egungo garapen teknikoak                                                | Olatz Altuna<br>Pablo Suberbiola<br>Lore Erriondo                         | 10 ordu |
| 10. Hizkuntz adierazle-sistemak                                                         | Iñigo Garaialde                                                           | 5 ordu  |
| <b>3. modulua. EUSKARA: CORPUSA ETA STATUSA</b>                                         |                                                                           |         |
| 11. Euskal Herriko hizkuntz egoera: statusa                                             | Jon Aizpurua<br>Kontxesi Berrio-Otxoa                                     | 10 ordu |
| 12. Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea                                      | Kike Amonarriz                                                            | 5 ordu  |
| 13. Hizkuntzazko jokaeraren aldaketa prozesua. Teoria eta praktika                      | Diego Egizabal                                                            | 5 ordu  |
| 14. Hizkuntz eskubideen eta lege statusaren egoera Euskal Herrian                       | Paula Kasares<br>Paul Bilbao                                              | 10 ordu |
| 15. Euskalgintzaren nondik-norakoak                                                     | Iñaki Arruti                                                              | 5 ordu  |
| 16. Hizkuntzen inguruko gizarte diskurtsoak                                             | Nekane Jausoro                                                            | 5 ordu  |
| 17. Euskara eta teknologia berriak                                                      | Andoni Sagarna                                                            | 5 ordu  |
| 18. Interneten erabilera hizkuntza plangintzan                                          | Gotzon Egia                                                               | 5 ordu  |
| <b>4. modulua. ESPARRUZ-ESPARRUKO PLANGINTZAK: MAKROAK ETA MIKROAK</b>                  |                                                                           |         |
| 19. Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra                                      | Amaia Agirre                                                              | 20 ordu |
| 20. Hizkuntza normalkuntzarako plangintza estrategikoa                                  | Rober Gutierrez                                                           | 10 ordu |
| 21. Hizkuntza plangintza udalerrri mailan                                               | Iñaki Arruti                                                              | 10 ordu |
| 22. Normalkuntza saioak administrazio publikoan                                         | Joseba Lozano                                                             | 10 ordu |
| 23. Hezkuntza eta lan munduko hizkuntza plangintzak                                     | Imanol Larrea<br>Mikel Zalbide<br>Santos Izagirre                         | 20 ordu |
| <b>5. modulua. EUSKARAREN KOMUNIKAZIOA</b>                                              |                                                                           |         |
| 24. Euskara eta komunikabideak                                                          | Joxe Ignazio Basterretxea                                                 | 10 ordu |
| 25. Komunikazioa euskara sustatzeko                                                     | Iñigo Fernandez<br>Asier Arrieta                                          | 10 ordu |
| 26. Identitatea eta komunikazioa. EITB-ren kasua                                        | Manu Castilla                                                             | 5 ordu  |

## IKASLE KOPURUA ETA EZAUGARRIAK

Ikastaroak oso harrera ona izan duela esan daiteke. Izan ere, 2001-2002ko ikasturtetik 2006-2007 ikasturtera, batez besteko ikasleen kopurua 60 bat izan da, urtez urte.

Dena den, ikasle kopuru horrek guztiak ez du ikastaroa osorik egiten, erdiak-edo, baizik. Adibidez, 2005-2006 ikasturteko datuen arabera ikasleen % 57k egin du ikastaroa osorik, % 38k moduluka eta % 5ek ikasgaika. Portzio horietan bilakaera bat gertatu da lehenbiziko ikasturtetik hona, izan ere hasiera batean ikasle denek edo ia denek 250 orduko lan-jarduna hartzen zuten euren gain. 2006-2007 ikasturtean, aldiz, ikasleen kopuru bera da ikastaroa osorik edo moduluka egitea aukeratu dutenak (% 37na, hain zuzen).

Ikasleek hartutako lan-zamaren aldaketa hori kezagarria eta pozgarria da, aldi berean. Kezagarria, ikastaroaren balizko merkatua agortzen ari izanaren adierazgarria izan daitekeelako; alegia, ikastaro osoa egin nahiko luketen askok honezkero egina dute. Pozgarria, berriz, modulu zein irakasgai batzuk egiteko izena ematen dutenek, aurretik 250 orduak eginda dituztelako; hau da, ikastaro osoak eragin dien gogobete maila altua izanik, soberako irakasgaietatik lantzeke utzi zituzten batzuk hurrengo urteetan egitea erabaki dute. Bestela esanda, irakasleria hori bezero leial bihurtu zaigu.

Bestalde, ikasleen profila anitza da eta, urtez urte zertxobait aldatu arren, badaude beti antzera mantentzen diren joera batzuk. Adibidez, gehiengo euskal filologia ikasi dutenek eta euskara teknikariek osatzen dute, ikasketei eta lanbideei dagokionez, hurrenez hurren. Azken urteotan profil horretan gertatzen ari den aldaketa bat, hauxe da: euskara irakasleen gorakada. Aldiz, bere horretan mantentzen da lizentziatu berriak direnen kopuru apala. Ikasleen profilaren adina ere goraka doa eta honela, 2006-2007 ikasturtean % 60 31-50 urte bitartekoa da.

Baina, Hiznet ikastaroko ikasleen gainontzeko ezaugarrien aurretik kokatu behar den bat ezin dugu aipatzeke utzi: motibazioa edo interesa. Izan ere, irakaskuntza-prozedurak, edukiak zein arduradunak onak izanda ere, ikasleen motibaziorik ezean jai du ikastaro orok. Eta hori, zorionez, ez da Hizneten kasua.

## HOBETZEKO ETA BERRITZEKO AHALEGINAK

Oro har, ikastaroaren balorazio positiboa urtero berretsia izan dela ziurta daiteke. Adibidez, 2005-2006 ikasturteari dagokionez, ikastaroan parte hartutakoen balorazio orokorra eginez, hona hemen jasotako emaitzak: bikain, % 15; oso ongi, % 70; ongi, % 15. Irakasgaika aztertuz gero ere, emaitza bera lortzen da.

Argi dago, dena den, beti dagoela zer hobetu; hortaz, ikastaro gero eta osatuago bat eskaintzea beti izan da ikastaroaren antolatzaile eta kudea-

---

*Asmo horrekin, 2001-2002 ikasturtean 18 irakasgaiko eskaintza prestatu zen, bost arlotan banatuta. Urteak joan urteak etorri, alabaina, eskaintza egokituz eta zabalduz joan da etengabe, 2006-2007 ikasturtean dagoen 26 irakasgairen eta 290 orduko eskaintza osatzeraino.*

*Irakasgai egokiak  
osatzeko gakoa  
irakasleen jakintzan eta  
konpetentzian datza,  
dudarik gabe. Hasiera  
batean, 26 irakasle aritu  
ziren irakasgaiak ematen,  
baina, eskaintza egokituz  
eta zabalduz joan denez,  
2006-2007 ikasturtean 33  
irakasle ditugu  
irakaskuntzaren  
arduradun.*

tzaileen leloa. Baina, ahalegin hori ustela litzateke ikasleen kritika eta iruzkinik gabe. Halakoak, modu sistematikoan biltzeko eta kontuan hartu ahal izateko, ikasgai eta aurrez aurreko saio bakoitzaren ebaluazioa eskatzen zaie ikasleei; horiek ez ezik, atalez ataleko ebaluazio zehatz eta orokorra ere egiten dute ikasleek, urte bukaeran. Horietan, nahiz telefonoz zein e-postaz azaldutako iritzietan oinarritzen dira, neurri handian, hobekuntzak.

Badaude, hala ere, ikastaroaren arduradunek beraiek egin dituzten hobekuntza eta berrikuntzak. Lehendabizikoa, irakaskuntza *on-line* osatzea aurrez aurreko saio batzuk antolatuz; aldaketa hori bigarren ikasturtean (2002-2003) burutu genuen, ikasleen harrera ezin hobe izanik. Hortik aurrera, *e-learning* ikastaroa izatea baino zuzenago litzateke esatea Hiznet *blended-learning* ikastaroa dela.

Bigarrena, irakaskuntza-edukiei erreparaturaz, irakasgaiak berritu eta hobetzea beti dugu helburu, hori bi modutan bideraturaz: bata, irakasleei euren irakasgaien edukiak osatzeko eta gaurkotzeko eskatuz; bestea, orain arte ikastaroan sartu ez diren edukiez osatutako irakasgai berriak eskainiz. Honela, 2006-2007 ikasturtean, euskararen komunikazioaren modulu berria eskaini da.

Azkenik, Hiznet ikastaro birtuala izanik, plataforma informatikoak garrantzi aparta du; horregatik, 2005-2006 ikasturtean zeharo berritu zen oinarri informatiko hori, bertan hainbat eduki eta zerbitzu berri sartuz. Ikasleak izan zein irakasleak izan, erabiltzaile gehienek ontzat jo zuten berrikuntza hori.

Gure gogoeta hauek triunfalismo antzuan eror ez daitezen alde ilun batzuk ere aitortu beharrean gaude. Adibidez, ahalegin franko egin arren nahi bezala bideratu ez dugun irakasgaiarik badago: eduki interesgarria baina estilo latza dutenak edo euskararen egoeretara eta berezitasunetara nahi beste doitu ez direnak. Badugu, halaber, gainditu ezin izan dugun ikasle-irakasleen bilgunea eta komunikazio-gune egokia; izan ere, gabezia hori gainditu asmoz foroa indarrean jarri eta, hasiera batean, dinamizatu arren, saioak porrot egin zuen.

Badugu, hortaz, zer hobetu, nola oraindik ez dakigun arren...■

## OHARRAK

1. Ikus ale honetan bertan, goi-mailako ikasketetan dagoen soziolinguistika irakaskuntza.
2. Aipamen berezia merezi dute Olatz Olasso, Amaia Lasagabaster eta Agurtzane Usandizagak Elixabet Almandozen aurretik arduradun tekniko lanetan jardun zutenak.
3. 2006-2007 ikasturteko irakasgaiak, irakasleak eta ordu kopuruak aurrerago dagoen taulan ikus daitezke.
4. Arestian zerrendatutako irakasleak ez ezik, Maria-Jose Azurmendi, Imanol Esnaola eta Nekane Arratibel bezalako profesional handien jakituriak lagundu digu denbora tarte batean.